

1978 - VI - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978ko Ekainaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martín eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, I. Berriatua, P. Charritton, J. A. Etxebarria, X. Gereño, J. A. Letamendia, X. Mendiguren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

Diharce, Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko eta maiatzeko batzar agiriak onartu dira.

a) HARREMANAK:

Editorial Marín, S. A. argitaletzeko gutuna irakurri da, beren asmoe-tako liburu batzuk euskaratzeko itzultzaileen izenak eskatzen dituen.

Liburuzain jaunak hartu diren liburuen zerrenda irakurri du eta emaileri eskerrak agertzea erabaki da.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Igazko bigarren alea aurkeztu da (EUSKERA, XXII, 1977, uztailetik abendura). Aurrerantzean atzerapenik ez izateko, aldizkariari buruzkoan, lanen egileak inprimategian parterik ez hartzea erabaki da.

Urrengo zenbakirako lanak: Eusko Kontseilu Nagusiak Euskaltzaindia onartzez igorri duen agiria. E. Knörr jaunaren sarrerako hitzaldia eta J. M. Satrustegi jaunaren ihardespena. A. Ezkurdia eta J. Garate jaunen lanak. Batzar txostenak eta beste zenbait gai labur: Udalen izendegia, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrez, VIII. Biltzarreko barne erregelak; berriak, hil berriak eta liburuak.

Euskaltzaindiak hartu duen idazkiaz zenbait ohar, eta Bergararako txostena eskatzea.

d) IRAKASLEGO BATZORDEAREN AZPIEGITURAZ:

Xabier Mendigurenen txostena. Irakasle titulurako mailak hobeto jartzeaz mintzatu da. Uztailearen 22an Donostian, 27an Iruinean eta abuztuaren 2an Eibarren etsaminak egingo direla, aditzera ematen du. Titulu

eta etsaminen historia agertzen du, orain arte titulua hartu dutenak 1.700 inguru direla D mailan eta 95 B mailan. Orainarteko ekintza aztertzen du, zer onuragarri eta zer huts izan diren adiaraziaz, eta datozen urteei begira, hobekuntzak nola finkatu behar direnaren eritziak agerrera dituzte. Baita ere, Unibertsitateko letra sailean euskara irakaskintza jartzeaz, hemendik hiru urteren buruan irakasle berriak atereaz joateko.

Gorago aipaturiko asmo eta eginkizunak aurrera eramateko Irakaslego Batzorde barnean azpibatzerde eragile bat izendatzen da: E. Knörr, X. Mendiguren eta J. J. Zearreta.

e) E.K.N.KO KULTUR KONTSEILARITZAK EUSKALTZAINDIARI ESKATZEN DION EUSKARAREKIKO PLANGINTZAZ:

J. San Martinen txostena. Zortzi puntutan agertu ditu, euskara, egunoroko hizkuntza normal bat bihurtzeko aurkitzen diren premiarik larrienak. Irakaslegintza eta E.G.B.ko eskoletan jartzeaz aparte, hauek Hezkuntza Kontseilaritzak bideratu beharrezkotzat joaz, Alfabetatze eta Euskalduntze lanak, herriz herri, nahiz irratiz edo telebistaz. Horrez gainera, irratsaio eta gainerako programak, bai irratiz eta bai telebistaz, egunetik egunera gehituaz, aldizkari, liburugintza eta abar, gai bakoitzak eskatzen duen plangintza eta langintza markatuaz.

f) "BAI EUSKARARI" KANPAINARI BURUZ:

X. Gereño jaunaren txostena. Kanpainaren kontua emanaz eta ondo antolamendurako batzorde finantziar eta batzorde linguistikoaren beharra agertuaz. Lehen batzordea kanpaina eratzen ibili direnekin eta Euskaltzaindikoekin osatzeko, eta bigarren Euskaltzaindiaren barruan. Hauen zergatia adiaraziaz.

Hortan parte hartu dutenekin batzar orokor batean gai hau aztertzea erabaki da.

g) EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURAREN LEKUKOAK:

Aurreko batzarretan erabilia den gai hontaz, Euskaltzaindiaren agiria irakurri du euskaltzainburuak, horren antolaketan finkatuaz.

Bestalde, magnetofonozko bilketak bizkortzeko, kaseten sariak gehituz hizkuntza bizia jasotzeko, publizitate etxe baten bidez zabalkunde handiagoa egiteaz hitz egin da.

h) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

J. San Martinek euskaltzainei aditzera emanez, txostentxo bat irakurri du, Konstituzio berriaren asmoetan euskararentzat hain begirapen guti agertzeaz, eta hizkuntzaren eskubideak azpimarkatu ditu.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN